# Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas
ORAIN INGURUMENA

# Testuingurua eta parte-hartze lerroak

Gipuzkoak klima aldaketaren aurka borrokatzeko estrategia bat du: Gipuzkoa Klima 2050. Foru Dekretu bidez onartu zen, eta GFAren ekintza klimatikoa planifikatzeko tresna da. Hori horrela, xedeak, jardun-ildoak eta ekintza zehatzak definitzen ditu, klima aldaketa arintzeari eta klima aldaketara egokitzeari dagokienez.

**UrbanKlima2050** proiektuaren bidez, Gipuzkoa Klima 2050 estrategiako jardun-ildo hauek garatuko dira:

- Arriskuei aurre hartzea.
- Lurraldearen erresilientzia areagotzea.
- Gipuzkoako gobernantza klimatikoko eredua baliozkotzea.

# C.2 Euskal Autonomia Erkidegoko arriskuen analisiaren hedadura (arriskuei aurrea hartzea)

- **Helburua:** Gipuzkoako lurraldeak klima aldaketaren eraginpean izango dituen arriskuak aztertzea eta horien ezaugarriak zehaztea, eta lurraldeko eremu eta azpiegitura ahulenak identifikatzea.
- **Aurrekontua:** 93.500 €
- **Epea:** 2020-2021
- **Espero diren emaitzak:** Lurraldearen arriskua eta klima aldaketaren eraginen aurrean duen kalteberatasuna ebaluatzea, eta plangintzara egokitzeko neurriak eta gomendioak proposatzea.



# C4.2. Hiri-inguruko azpiegitura berdea, lurraldearen erresilientzia hobetzeko.

- **Helburua:** Eskualde eta udalerri mailan garrantzitsuak diren espazio eta elementu naturalak mugatu, leheneratu eta birnaturalizatzea, konektibitate ekologikoa, sistema naturalen eta zerbitzu ekosistemikoen jarraitutasuna eta funtzionamendu egokia hobetzeko, lurraldea klima aldaketara egokitzeko neurri gisa.
- **Aurrekontua:** 486.000 €
- **Epea:** 2020-2023
- **Espero diren emaitzak:** Lurraldearen erresilientzia handitzea, sistema naturalen konektibitatea, jarraitutasuna eta funtzionamendu egokia hobetuz, EAEko Azpiegitura Berdearen Sareari ahalik eta kapilaritate eta funtzio-aniztasun handiena emanez.



# C.9.3 Gobernantza klimatikoko ereduak baliozkotzea

- **Helburua:** Gipuzkoako gobernantza klimatikoko eredua baliozkotzea, eta beste lurraldeetan errepikatu daitekeen aztertzea.
- **Aurrekontua:** 37.000 €
- **Epea:** 2022-2025
- **Espero diren emaitzak:** Kostako eremuetan errepikatu daitekeen gobernantza klimatikoko eredu bat definitzea.

